

## Martin Ugaldek bere herria helburu

[Egile ezezaguna]

*Euskararen Berripapera*, 115. zk., 2001-12: 2.

Martin Ugalderi buruzko jardunaldiak egin ziren joan den azaroan, Donostian eta Andoainen. Bernardo Atxaga, Txomin Peillen, Jose Angel Ascunce, Anjel Lertxundi eta beste hainbat irakasle eta idazle bildu ziren *Martin Ugaldek bere herria helburu* izeneko jardunaldietara.

1921ean Andoainen jaioa, bertan bizi izan zen Martin Ugalde Espainiako Gerra Zibilak familia dena atzerrira bidean jarri zuen arte. Venezuelan izan ziren Ugaldetarrak 1947az gero, eta bertan zaildu zen kazetari eta idazle. 1955ean, *El Nacional* egunkariak antolatu zuen Narrazio Laburren Lehen Saria irabazi zuen, "Un real de sueño sobre un andamio" ipuina idatzirik, eta handik bi urtera lehen ipuin bilduma argitaratu zuen, narrazio labur haren izenburu berdinez. Venezuelan bertan zegoela hasi zen euskarazko literatur lanak sortzen, ipuinak (*Iltzalleak*, 1959), antzerkia (*Ama gaxo dago*, 1964), haurrentzako ipuinak (*Umeentzako kontuak*, 1966), eta kazetaritza lanak.

1969an itzuli zen Euskal Herrira, Hondarribian hartu zuen etxea. *Zeruko Argia*-n eta Euskaltzaindian lagundu zuen. 1973an atzera atzerrira behartu zuen poliziak. Hiru urte eman zituen Iparraldean. 1976an itzuli zen. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Euskarazko Arazoetarako zuzendari izendatu zuten 1982an. Karguak eta ardurak gorabehera, Martin Ugalde beti bizi izan da idazteari emana. Hainbat eta hainbat dira idatzi dituen liburuak, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz ere, historia, literatura, eta kazetaritza landuz. *Itsasoa ur bazter luzea da*, *Hablando con los vascos*, *Síntesis de la Historia del País Vasco*, *El libro blando del euskera*, *Mantal urdina*, *Bihotza golkoan*, *Itzulera baten historia*, ETBrako "Euskaldunen hitzak" elkarrizketa sorta...

Martin Ugalderen lanak askotariko sari eta goraipamenak irabazi ditu. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Andoaingo herriak, Euskaldun Egunkariak eta beste hainbat erakunde eta elkartek ohoratu dute Ugalderen leialtasuna. 2001eko Euskadi Literatura Sarien banaketa-ekitaldian bertan ere, Martin Ugalderen bizitza eta lana goratu zituen Ibarretxe lehendakariak.